



Natura Zientziak

Lehen Hezkuntzako 3. mailarako Natura Zientziak liburua Zubia Editoriala, S. L. ren eta Santillana Educación, S. L. ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA

María del Valle Alcover de la Hera
Susana Lobo Fernández
Daniel Masciarelli García
Juan Ignacio Medina Crespo
Cristina Zarzuelo Puch

IRUDIAK

Alademosca il-lustració
Digitalartis
José Luis Navarro
Marcelo Pérez

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea Llona
Begoña Barroso Nombela
Daniel Masciarelli García
Juan Ignacio Medina Crespo
Cristina Zarzuelo Puch

LEHEN HEZKUNTZAKO ZUZENDARITZA

ETA EDIZIO-KOORDINAZIOA

Joseba Santxo Uriarte
Maite López-Sáez Rodríguez-Piñero

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskema eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

Unitatea	Hasierako irakurgaia	Jakin
1 Gure gorputza 6	Gure hazkuntza zaintzen dutenak	<ul style="list-style-type: none"> Giza gorputza Bizi-funtzioak Bizitzaren aroak Hurtzaroa
2 Gure elikadura 20	Obesitatea eta desnutrizioa	<ul style="list-style-type: none"> Mantenugaiak Elikagaiak zaintzea Dieta osasungarria Elikadura ohitura osasungarriak
3 Gure osasuna 34	Benetakoa dirudi	<ul style="list-style-type: none"> Osasuna: ohitura osasungarriak Elikagaien higiena eta alergia Aisia eta atsedena
BAIETZ ONDO EGIN! eta NIRE PROIEKTUA. Abeltzaintza. Lehen hiruhilekoa		
4 Animaliak 50	Erreskate-txakurrak	<ul style="list-style-type: none"> Animaliak eta bizi-funtzioak Animalia motak Animalien onurak Abeltzaintza
5 Ornodunak 64	Zer animalia da?	<ul style="list-style-type: none"> Ugaztunak Hegaztiak Narrastiak Anfibioak eta arrainak
6 Ornogabeak 78	Zeta	<ul style="list-style-type: none"> Belakiak, marmokak eta Moluskuak eta ekinodermatuak Artropodoak
BAIETZ ONDO EGIN! eta NIRE PROIEKTUA. Abeltzaintza. Bigarren hiruhilekoa		
7 Materia eta materialak 94	Airearen indarra	<ul style="list-style-type: none"> Materia Materiaren aldaketak Material naturalak Material artifizialak
8 Energia eta ingurumena 108	Pilak eta bateriak	<ul style="list-style-type: none"> Energia Energiaren ekoizpena Energiaren erabileraren ondorioak Ingurumena zaintzen
9 Makinak 122	Etxe baten tamainako ehogailua	<ul style="list-style-type: none"> Makinak Makina motak Asmakizunak

BAIETZ ONDO EGIN! eta NIRE PROIEKTUA. Abeltzaintza. Hirugarren hiruhilekoa

BA OTE DAKIZU?: Animaliak marraztea. Animalien fitxak egitea. Barra-grafikoa egitea. Material egokiekkin eraikitzea.

Ba ote dakizu?	Egiten jakin
	Grafikoak interpretatzea
Landare-zuntza Etiketak irakurtzen	Dieta osasungarria planifikatzea
Profesionalak sukaldean Zergatik egiten dugu lo?	Aisialdia antolatzea
Begi konposatuak Arrain-hazkuntza	Maskota aukeratzea eta zaintzea
Hegaztien behaketa	Animaliak gakoek bidez identifikatzea
	Prozesu bat irudikatzea
Nahaste bateko osagaiak identifikatzea Lehen lanabesak	Esperimentu bat egitea eta interpretatzea
Zentral nuklearrak Berotze globala	Etxean energia aurrezte
Oso asmakizun garrantzitsuak	Makina bat eraikitzea: txalupa motorduna






Oinarrizko gaitasunak

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberrako oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

Oinarrizko gaitasunak

-  Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna
-  Matematikarako gaitasuna
-  Zientziarako gaitasuna
-  Teknologiarako gaitasuna
-  Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
-  Arterako gaitasuna
-  Mugimendurako gaitasuna

Zehar-gaitasunak

-  Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
-  Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
-  Elkarbizitzarako gaitasuna
-  Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna
-  Izaten ikasteko gaitasuna

1

Gure gorputza



Gure hazkuntza zaintzen dutenak

Haurrek urtean behin pediatarrenera joan behar dute osasuntsu daudela eta behar bezala hazten eta garatzen ari direla egiaztatzeko. Medikuek miatu egiten dituzte, eta besteak beste, neurtu eta pisatu egiten dituzte.

Pediatrek tauletan eta grafikoetan begiratzen dute adin bakoitzeko garaiera eta pisu ohikoena zein den.

Haur guztiek ez dute, jakina, pisu eta neurri bera. Haurren neurrien artean aldeak egoten dira, baina hori guztiz normala da.

Baina haur baten garaiera eta pisua ohiko neurrietatik oso urrun badago, arazo bat duela adieraz dezake eta arreta jarri behar zaio.





Irakurri eta ulertu problema

- Zer dira pediatriak?
 - Gaixorik ez bagaude medikuarenera joan behar al dugu?
 - Zertarako pisatzen eta neurtzen zaitu pediatriak?
 - Zer gertatzen da haur baten pisua eta neurria ohikoetatik oso urrun badago?
 - Begiratu ezkerreko argazkiari eta azaldu zer egiten ari diren.
- ★ ■ **AHOZ ADIERAZI.** Bikoteka, antzeztu pediatriarenera egindako bisita bat. Bat medikua izango da, eta bestea gaixoa. Gero, egin alderantziz.



EGITEN JAKIN



AMAIERAKO ATAZA

Grafikoak interpretatzea

Unitate hau bukatzen duzunean gai izango zara haur baten luzera-grafikoa interpretatzeko, eta lehen urteetan nola ari den hazten ikusiko duzu.

Hori baino lehen, gure gorputza nolakoa den eta nola funtzionatzen duen ikasiko duzu, bai eta zer aro pasatzen dituen eta bakoitzean zer aldaketa izaten dituen ere.

ZER DAKIZU HONETAZ?



- Gure gorputzak zenbait atal ditu.

Kopiatu haurraren marrazkia zure koadernoan eta idatzi, marrazkian bertan, dakizkizun gorputzeko atal guztien izenak.

- Pertsonok jaio, elikatu eta hazi egiten gara, eta helduarora iristen garenean haurrak izan ditzakegu.

Zer egin behar dugu nahitaez gizakiok bizirik egon ahal izateko?




Giza gorputza

Gorputzeko atalak

Gure gorputzak hiru atal ditu: burua, enborra eta gorputz-adarrak. **1**

- **Buruaren** aurrealdean aurpegia dago, eta hor daude bekokia, masailak, kokotsa, sudurra, begiak eta ahoa.
- **Enborra** bularraldeak eta sabelaldeak osatzen dute.
- **Gorputz-adarrak** bi dira: goiko gorputz-adarrei beso esaten zaie, eta behekoiei, hanka.
 - Goiko gorputz-adarren atalak besondoa, besaurrea eta eskua dira.
 - Beheko gorputz-adarren atalak izterra, zangoa eta oina dira.

Gorputzak hiru atal ditu: burua, enborra eta gorputz-adarrak.




1 Gorputzeko atal nagusiak.

Gorputza barrutik

Gorputzaren barrualdea gorputzaren funtzio-namendurako behar diren **organo**ez osatuta dago. **2**

- Buruan **garuna** dago, garezurrak babestua. Gorputzeko beste organo guztien funtzio-namendua zuzentzen du.
- Enborrean, organo oso garrantzitsuak daude; besteak beste, honako organo hauek: **bihotza**, **birikak**, **giltzurrunak**, **urdaila**, **hesteak**...
- **Hezurrek** eta **giharrek**, bai eta giltzadurek ere, gorputzari eusten diote eta horiei esker mugitu gaitezke.

Barne-organo guztiek elkarri lagunduz egiten dute lan gure gorputzak behar bezala funtziona dezan.



2 Gorputzeko zenbait organo.

Azala

Azalak gure gorputz osoa biltzen eta babesten du. Gainera, hotzaren, beroaren, minaren... informazioa jasotzen du.

Burua estaltzen duen azalak **ile** asko du. Beste atal batzuetan, iletso motzak eta meheak daude.

Azalak **melanina** izeneko gai bat du, eta eguzkitik babesten gaitu. Melaninari esker eguzkia hartzen dugunean azala iluntzen zaigu. **3**

Azalak gorputza biltzen eta babesten du, eta informazioa jasotzen du.

Pertsonak desberdinak gara

Pertsonen artean, desberdintasunak daude zenbait alderditan:

- **Sexua.** Emakumeen eta gizonen gorputzak desberdinak dira.
- **Garaiera.** Pertsona guztiek ez dute luzera bera.
- **Gorpuzkera.** Batzuek gorputz zabalagoa dute, eta beste batzuek, berriz, meheagoa.
- **Ezaugarri bereizgarriak.** Begien kolorea, sudurraren eta ahoaren forma, ahotsa... horiek dira gure ezaugarri bereizgarriak.

Pertsonen artean zenbait alderdi desberdin daude: sexua, luzera, gorpuzkera eta ezaugarri bereizgarriak.



- 3** Eguzkitik babesteko krema. Melaninak eguzkitik babesten bagaitu ere, eguzkitako krema erabili behar da.

IRUDIAREKIN LANEAN

- Zer zenbaki agertzen da krema-potoan?
- Ikertu zer esan nahi duen zenbaki horrek.

JARDUERAK

- 1** Zer atal dituzte goiko gorputz-adarrek? Eta behekoek?
- 2** Non dago bularraldea? Eta sabelaldea?
- 3** Zure azalaren kolorea aldatu egiten al da urtean zehar?
 - Zergatik gertatzen da hori?
- 4** Begiratu hurbilen duzun ikaskideari.
 - Zer duzue desberdina?
 - Zer duzue antzekoa?



Bizi-funtzioak

Pertsonak, izaki bizidun guztien moduan, hiru bizi-funtzioak egiten ditugu: nutrizioa, ugalketa eta harreman-funtzioa.

Nutrizio-funtzioa

Jolasten ari garenean, ibiltzen, pentsatzen... gure gorputzak **energia** kontsumitzen du.

Gainera, gure gorputzak ezinbesteko ditu zenbait **substantzia**, hazteko eta behar bezala funtzionatzeko.

Nutrizio-funtzioa elikagaiak hartzea da, eta haietatik behar-beharrezko ditugun energia eta substantziak lortzea. **1**

Funtzioak zenbait fase ditu:

- Hasteko, elikagaiak hartu behar ditugu.
- Jarraian, gure gorputzaren barruan ematen den prozesuari esker, gorputzak elikagai horietatik behar duen materia lortzen du.
- Ondoren, materia hori gorputz osoan zehar banatzen da, eta hortik lortzen ditugu beharrezko substantziak eta energia.
- Azkenean, behar ez duguna botatzen dugu.

Nutrizio-funtzioa elikagaietatik energia eta substantziak lortzea da.


Ugalketa-funtzioa

Helduaroan, gure gorputza prestatuta dago **seme-alabak** izateko.

Ugalketa-funtzioa ondorengoak izatea da; hau da, seme-alabak izatea.

Seme-alabek gurasoen antza izan ohi dute; izan ere, gurasoetako ezaugarri asko heredatzen dituzte. Adibidez, guraso altuek seme-alaba altuak izan ohi dituzte. **2**

Ugalketa seme-alabak izatea da, gurasoen antza izan ohi dutenak.



- 1** Nutrizio-funtzioaren eskema. Elikagaietatik gure jardueretarako energia lortzen dugu eta hazteko behar ditugun materialak.



- 2** Seme-alabek gurasoen eta anai-arreben antza izan ohi dute.

Harreman-funtzioa

Bizirik irauteko, gure inguruan gertatzen ari diren gauzei buruzko informazioa behar dugu, behar den bezala erantzun ahal izateko.

Esaterako, kalera irteteen auto baten motorra entzuten dugu, etxeak eta zuhaitzak ikusten ditugu, loreak usaintzen ditugu... Gure gorputzean gertatzen ari dena ere sentitzen dugu: hotza edo beroa, gosea, egarria, mina, azkura... 3

Harreman-funtzioa gure inguruan gertatzen denaz ohartzea eta horri erantzun egokia ematea da.

Harreman-funtzioa inguruan gertatzen denaz ohartzea eta horri erantzutea da.

IRUDIAREKIN LANEAN

- Azaldu zer gertatzen ari den irudi bakoitzean.
- Ohartu neskak nola erantzun duen. Zer beste erantzun eman daiteke?

Gure inguruan gertatzen diren gauzen informazioa jasotzen dugu.



Informazioa interpretatu eta nola erantzun pentsatzen dugu.



Erantzun egokia ematen dugu.



3 Harremanen funtzionamendua.

JARDUERAK

- 1 **Azaldu:**
 - Zergatik da beharrezkoa nutrizio-funtzioa?
 - Zer fase ditu?
- 2 **Azaldu zein den ugalketaren funtzioa eta zergatik duten seme-alabek gurasoen antza.**
- 3 **Idatzi informazioa jaso eta erantzutearen adibide bat.**
- 4 **Zer bizi-funtzio ageri da edo dira eskuineko argazkian? Azaldu zergatik.**



Bizitzaren aroak

Pertsonak aldaketak izaten ditugu bizitzan zehar. Guztiok zenbait aro igarotzen ditugu, eta horietan gure gorputza aldatu eta hazi egiten da. Gure adimena ere garatu egiten da, eta eza-gutza eta trebetasun berriak eskuratzen ditugu.

Pertsonen bizitzan lau aro daude: **hautzarroa**, **nerabezarroa**, **helduarroa** eta **zahartzarroa**.

Hautzarroa

Etapa honetan hazten eta aldatzen gara gehien. Jaioberria besteen mende dago ia gauza guztietarako. Hazten ari den neurrian, bere gorputza aldatu egiten da eta etengabe ikasten ditu gauza berriak.

Hautzarroak hamabi urte arte irauten du, gutxi gorabehera.



HAURTZARROA

Nerabezarroa


12 eta 16 urte bitartean gorputza erabat aldatzen da: **pubertaroa** da. Pertsonak helduak izateko prestatzen dira. Aldaketak izaten dira bai gorputzean bai adimenean.

Begi-bistakoak dira nesken eta mutilen arteko aldeak. Mutilei ahotsa aldatzen zaie, eta ilea ateratzen zaie aurpegian eta gorputzean. Neskei bularrak hazten zaizkie eta gorputzaren forma aldatzen zaie.

Nortasunean ere aldaketak izaten dituzte: nerabeak independenteagoak dira; beren zaletasunak dituzte eta beren erabakiak hartu nahi dituzte.

IRUDIAREKIN LANEAN

- Aukeratu irudietako eszena bat eta deskribatu.
- Zenbat pertsona ageri dira beheko irudian?



NERABEZARROA

Helduaroa

Helduaroan gorputza erabat garatuta eta prestatuta dago seme-alabak izateko.

Pertsona helduak ez dira gehiago hazten eta pixkanaka aldatu egiten dira. Adibidez, gizon batzuei ilea erortzen hasten zaie.

Aro honetan pertsonak **erantzukizunak** hartzeko prest daude, hala nola lan egiteko, seme-alabak zaintzeko eta gizartean aktiboak izateko.



HELDUARO



ZAHARTZAROA

Zahartzaroa

Zahartzaroan, gorputzak arintasuna, indarra eta erresistentzia galtzen ditu. Ilea zuritu egiten da, eta azala zimurtu egiten da.

Zaharrek esperientzia eta ezagutza handia dute, bai eta oroitzapen asko ere. Askok ikasi dezakegu haiengandik!

Bizitzan zehar, gizakiok haurtzaroa, nerabezaroa, helduaroa eta zahartzaroa pasatzen ditugu.

JARDUERAK

- 1 Zenbat urte dituzu eta zer arotan zaude? Eta zure gurasoak?
- 2 **IDATZIZ ADIERAZI.** Azaldu nolakoa nahiko zenukeen izan helduaroan, zertan jardun nahiko zenukeen eta haurrak izan nahiko zenituzkeen.
- 3 Galdetu aitona-amonei edo pertsona zahar bati nola jolasten ziren: jolasen izenak, erabiltzen zituzten jostailuak... Azaldu datuak **Nire aitona-amonon jolasak** izeneko txosten batean.

Haurtzaroa

Haurtzaroa bizitzako lehen aroa da, jaiotzen garenetik hama-bi urte artekoa, gutxi gorabehera. Aro honetan hazten gara gehien. Ikasi ere halaxe egiten dugu, ikasteko gaitasun izugarria izaten baita aro honetan.

Haur jaioberria

Jaioberriek, gutxi gorabehera, **berrogeita hamar zentimetro**ko luzera izaten dute, eta pisua, **hiru kilo** ingurukoa. Ile mehea eta leuna izaten dute. Sabelean duten azal zatitxo erortzen zaienean, **zilborra** agertzen da, guztiz osatuta. **1**

Jaioberrien burua oso biguna da, oraindik ez baitira hezurak guztiz elkartu.

Jaioberriak hortzik gabe jaiotzen dira, eta esnea baino ez dute hartzen. Une oro zainduko duen norbait behar dute ondoan, eta ordu asko pasatzen dituzte lotan.

Jaioberriak une oro zaindu behar dira, hortzik gabe jaiotzen dira eta esnea baino ez dute hartzen.



1 Haur jaioberria. Zilborra egun gutxi barru osatuko da.

Gorputzaren aldaketak

Jaioberriek buru oso handia dute gorputzarekin alderatzen badugu.


Lehenengo urtean, izugarri hazten dira eta azkar hartzen dute pisua. Hortik aurrera, polikiago hazten dira. Gorputza luzatu egiten da eta buruak ez dirudi lehen bezain handia.

Jaioberriak hortzik gabe jaiotzen dira. Hortzak laugarren hilabetetik aurrera hasten dira ateratzen eta lehenengo hortzeria osatzen da, **esneko hortzeria** izenekoa. Sei urte betetzen dituztenean esneko hortzak erortzen hasten dira eta behin betikoak ateratzen. **Behin betiko hortzeria** pertsonak helduak direnean osatzen da. **2**

Haurtzaroan asko hazten gara. Lehenengo, esneko hortzak ateratzen dira, eta horiek erortzean, behin betikoak.

IRUDIAREKIN LANEAN

- Zenbat hortz daude esneko hortzerian? Eta behin betikoan?



2 Esneko hortzeria eta behin betiko hortzeria.

Hautzaroan gauza asko ikasten dira. Hasieran guztiz besteen mendeko den haurrak pixkanaka gauzak bere kabuz egiten ikasten du.

Ibiltzen eta **hitz egiten** ikastea lorpen garrantzitsuak dira. Hasieran lau oinean ibiltzen dira; gero zutik jartzen dira eta lehen pausoak ematen dituzte. Hori urtebete inguru dutenean gertatzen da. **3**

Hasieran, hurrek negar egiten dute zerbait behar dutenean edo gose direnean. Geroago, irribarre eta barre egiten dute zerbait adierazteko. Aurrerago, lehenengo hitzak esaten dituzte, eta bi urte inguru dituztenean, hitz egiten dute. Helduak imitatuz ikasi dute. Lehen urte horietan hizkuntzak oso erraz ikasten dituzte.

Ikastetxera ere joaten dira. Han, gauza asko ikasteaz gain, beste ume batzuekin elkartzeko dira, jolastu egiten dira, lagunak egiten dituzte...

Hautzaroan gauza asko ikasten dira, besteak beste, hitz egiten eta ibiltzen.

Osasuna

Ohitura osasungarriak oso garrantzitsuak dira edozein adinetan dela ere:

- Denetarik jan, baina neurrian.
- Egoki eseri eta ez hartu pisu handirik.
- Jatordu bakoitza egin eta gero, hortzak eta mihia garbitu.
- Ariketa fisikoa egin, aisiarako denbora izan eta nahikoa lo egin.

Indartsu eta osasuntsu hazteko, oso garrantzitsua da ohitura osasungarriak izatea.



- 3** Hurrek beren gurasoekin ikasten dute lehen pausoak ematen.

JARDUERAK

- 1** Idatzi jaioberriek dituzten **bost bereizgarri**.
Adibidez: *beren pisua hiru kilo ingurukoa izaten da.*
- 2** **Azaldu zer diren esneko hortzak eta behin betiko hortzak.**
- 3** **Zer nahiko zenuke egin zure lagunekin zaudenean?**
- 4** **IDATZIZ ADIERAZI.** Azaldu **zer ohitura osasungarri dituzun.**


Grafikoak interpretatzea

Normalean, datuak biltzen ditugunean taula batean jasotzen ditugu. Baina grafikoa ere erabil dezakegu horretarako.

Grafikoa datuak adierazteko erabiltzen den irudi bat da.

→ Irakurri eta begiratu arretaz grafikoari

Maite Koldoren ama da. Jaio zenetik haren luzeraren neurria jaso du eta grafiko honetan adierazi du:



→ Aztertu grafikoa

- 1 **Grafikoak ardatz izeneko bi lerro gorri ditu, bat horizontala, eta bestea bertikala.**
 - Zer adierazten da ardatz horizontalean? Eta bertikalean?
- 2 **Grafikoan lerro urdin bat dago, gurutzez markatutako zenbait puntu elkartzuz marraztu dena.**
 - Zer adierazten dute gurutze horiek?
- 3 **Lerro urdina urtez urte hazten al doa? Zergatik? Zure ustez, behera egin al dezake urte batetik bestera?**
- 4 **Erantzun:**
 - Zer luzera zuen Koldok lau urte zituenean? Eta sei urte zituenean?
 - Zer adin zuen Koldok 86 zentimetro zituenean? Eta 102?



1 LABURPENA. Kopiatu laburpena zure koadernoan eta osatu hitz hauekin:

organoak – ugalketa – enborra – bizi – azala – garunak
informazioa – nerabezaroa – nutrizioari – elikagaietatik – zahartzaroa

Gorputzak hiru atal ditu: burua, [] eta gorputz-adarrak.

Gorputzaren barnean [] daude, gure gorputzak funtzionatzeko nahitaezkoak.

[] gorputzeko beste organoen funtzionamendua zuzentzen du.

Gorputzaren kanpoaldean [] dago, gorputza biltzen eta babesten.

[]-funtzioak nutrizio-funtzioa, []-funtzioa eta harreman-funtzioa dira.


Inguruko [] jasotzen da eta erantzun bat ematen da.

[] esker, gorputzak behar dituen energia eta substantziak lortzen ditugu [] .

Gizakiaren bizitzaren aroak hauek dira: hartzaroa, [] , helduaroa eta [] .



2 ESKEMA. Kopiatu eta osatu zure koadernoan bizitzaren aroei buruzko eskema hau.



- 1 Errepasatu 8. eta 9. orrialdeak eta idatzi, koadernoan, han ageri diren gorputz atal guztiak, ordenan.

Burua

Enborra

Gorputz-adarrak

- 2 Demagun saskibaloian zabiltzala zure lagunekin.

Zer bizi-funtzio gertatzen dira?

- 3 **PENTSATZEKO.** Demagun kale bat gurutzatu behar duzula eta semaforoa gorri dagoela oinezkoentzat. Azaldu nola gertatzen den harreman-funtzioa.

► Hasi horrela:

Semaforoari begiratzen diot eta gorri dagoela ikusten dut.

- 4 **BALIOETAN HEZTEA.** Azaldu zergatik jarri behar den eguzkitik babesteko kroma.

- 5 Nutrizio-funtzioan elikagaiak hartzen ditugu.

Zer lortzen du gorputzak elikagaietatik?

- 6 **LAN KOOPERATIBOA.** Egin koadernoan honelako taula bat. Idatzi bertan zure ikaskide guztien izenak, bai eta bakoitzaren oinetakoen neurria ere.

IZENA	Oinetakoen neurria
Amaia	32
Mikel	34
Gorka	33

Egin neurri guztien zerrenda bat, txikienetik handienara ordenatuta, eta erantzun galdera hauei:

- Zer neurri da handiena?
- Zer neurri da txikiena?
- Zer neurri errepikatzen da edo dira gehien?



7 ZEU EKINTZAILE. Izan kontuan aurreko ariketako datuak.

★ **Imajinatu zapataria zarela eta Lehen Hezkuntzako 3. mailako neska mutilentzat 900 zapata pare egin nahi dituzula.**

- Zer neurritako zapatak egingo zenituzke eta zenbaki bakoitzeko zenbat pare?

8 Azaldu nola ikasi zenuen gauza hauek egiten. Esan nork lagundu zizun eta nola egiten zenituen hasieran.

Lokarriak lotu

Kenketak egin

Puzzleak egin

9 Orain haurtzaroan zaude. Zer esan dezakezu aro horri buruz? Zure ustez, zer da aro horretako garrantzitsuena?

10 PENTSATZEKO. Irakurri eta erantzun galderei.

★ *Mikel eta Igone pozik daude alabak lan ona aurkitu duelako. Semea, Pello, oihuka hasi zen pozaren pozez, aldatzen ari zitzaion eta orain bitxia zirudien ahotsarekin. Aitona Lukas, berriz, apur bat triste jarritz zen; izan ere, bera ez zen jada lanean ari eta etxean gelditu beharko zuen bakarrik besteak itzuli arte.*

- Zer arotan dago kontakizuneko pertsona bakoitza?
- Nola dakizu hori?

11 Azaldu gorputzeko zer atal diren pertsona batzuk besteengandik gehien bereizten dituztenak.



Askotariko adimenak

★ **Aukeratu eta egin jarduera hauetako bat:**

- Bilatu azkenaginei buruzko informazioa Interneten edo liburuetan eta azaldu aurkezpen batean.
- Bilatu bizitzako aroak adierazten dituzten zure familiako argazki batzuk eta erabili horma-irudi bat egiteko.
- Seme-alabek gurasoen eta neba-arreben antza dute gauza batzuetan. Idatzi kontakizun bat ideia horretan oinarrituta.

